- Oreka kimiko ezberdinen arteko erlazioak eta oreka baldintzak aldatu ditzaketen aldagaiak identifikatzeko gai da
- Oreka kimiko ezberdinetan parte hartzen duten espezieen kontzentrazioak numerikoki zein grafikoki kalkulatzeko dituzte.
- Substantzia desberdinak disoluzioan nahastean gerta daitezkeen erreakzioak (neutralizazioa, balorazioa, maskaratzea, ko-hauspeateza, ...) eta orekan daude espezie nagusienak aurreratu dituzte.
- Disoluzioan gertatzen diren oreka kimikoen problemak numerikoki zein grafikoki ebazteko metodologiak erabiltzen dituzte.
- Sistema kimikoen oinarriko ikasketarako datuen analisia eta interpretazioa deskribatzen dituzte

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

"Kimika Orokorra II" irakasgaiaren edukiak teorikoak dira, eta problemen ebazpenaren bidez aplikatuko dira. Kimikako Graduan eduki teoriko hauei dagozkien laborategiko praktikak, berriz, "Metodologi Esperimentala Kimikan" irakasgaiari jorrotzen dira.

### I. ZINETIKA KIMIKOA.

ERREAKZIO-ABIADURA. Erreakzio-abiadura eragina duten faktoreak. Abiadura-ekuazio diferentziala. Erreakzioaren ordena. Erreakzio-abiadura determinatzeko metodo esperimentalak. Hasierako abiaduraren metodoa. Abiadura-ekuazio integratuak. Erdibizitza. Erreakzio-abiaduraren gaineko tenperaturaren eragina.

ERREAKZIO KIMIKOEN MEKANISMOAK. Prozesu elementalak. Prozesu korapilatsuak. Mekanismo bati egokitzen den abiadura-ekuazioaren lorpena. Urrats mugatzailearen hurbilketa. Egoera geldikorren hurbilketa. Kolisio-teoria: aktibazio-energia. Trantsizio egoeraren teoria. Erreakzio elementalaren eta korapilatsuen energia-profila. Katalisia.

### II. TERMODINAMIKA KIMIKOA.

TERMOKIMIKA. Lana. Bero. Termodinamikaren lehen printzipioa. Barne-energia eta entalpia. Erreakzio- beroaren determinazio esperimentala. Kalorimetria. Erreakzio-entalpia eta formazio-entalpia estandarrek. Lotura-energia. Erreakzio-entalpiaren gaineko tenperaturaren eragina.

ENTROPIA ETA ENERGIA ASKEA. Entropiaren kontzeptua. Entropiaren kalkulua. Termodinamikaren bigarren printzipioa. Sistema itxiaren espontantietatearen eta orekaren irizpidea. Prozesu batzuen entropiaren kalkulua. Espontantietatearen eta orekaren baldintza orokorra: Gibbs-en energia askea; Helmholtz-en energia askea. Entropia molekula-mailan. Hirugarren printzipioa. Erreakzio-Gibbsen energia askearen aldaketa.

III. OREKA KIMIKOA. Potentzial kimikoa eta materia-oreka. Oreka-konstantea. Oreka-konstantearen gaineko tenperaturaren eragina. Oreka-egoeraren aldaketa. Oreka kimikoa ez-elektrolitoen disoluzioetan. Oreka kimikoa elektrolitoen disoluzioetan. Erreakzio akoplatuak.

IV. SUBSTANTZIA PURUEN FASEEN ARTEKO OREKA. Likido-bapore oreka. Lurrun-presioa. Lurrun-presioaren tenperaturarekiko menpekotasuna. Solido-bapore oreka. Solido-likido oreka. Fase-orekaren tratamendu termodinamiko. Fase-diagrama. Egoera kritikoa. Fase-araua.

V. OREKA IONIKOAK DISOLUZIOAN. Oreka konstante motak. Indar ionikoa. Aktibitate koefizienteak eta kalkulua. Debye-Hückel-en teoria.

AZIDO-BASE OREKA. Disolbatzailearen papera. Uraren azido-base izaera. Azido eta baseen indarra. pH- ren eskala. Azido-base oreken kalkulua. Masa balantzeak. Elektroneutralitate ekuazioa. Protoi balantzea. Azido-base Azido-base orekaren ebazpen numeriko eta grafikoa. Protolito ahul monoprotoiko eta poliprotoikoak. Disoluzio indargetzaileak. Tanpoi-ahalmena. Aplikazioak

VI. KONPLEXUEN FORMAZIO-OREKA. Orekaren deskripzioa. Konplexu motak. Hartz bakarrek eta anitzeko ligandoak. Adizio konplexuak eta kelatoak. Egonkortasuna. Oreka konstantea jarraituak eta osoak. Masa balantzeen ekuazioak. Oreka kalkulua. Diagrama logaritmikoak. pH-ren eragina. Maskaratzea. Aplikazioak.

VII. DISOLBAGARRITASUN OREKA. Orekaren deskripzioa. Disolbagarritasun biderkadura. Disolbagarritasuna. Disolbagarritasunean eragina duten faktoreak: gatz efektua. Ioi komunaren efektua. Diagrama logaritmikoak Hauspeate zatikatua. pH-ren eragina. Beste oreken eragina. Aplikazioak.

VIII. ERREDOX OREKA. Sarrera. Elektrodo potentzial estandarra. Erredox prozesu motak. Nernst-en ekuazioa. Oreka konstantea. Orekako potentziala. Uraren erredox sistema. Diagrama logaritmikoa. Elektrodo potentzialean eragina duten faktoreak. Beste oreken eragina. Dismutazioa. Aplikazioak.

IX. DISOLUZIOAK. Disoluzio motak. Propietate molar partzialak. Osagai anitzeko sistemak eta potentzial kimikoa. Disoluzio idealen propietate termodinamikoak. Disoluzio ez- idealak. Elektrolitoen disoluzioak. Propietate koligatiboak

## METODOLOGIA

Eskola magistralean (M) gai bakoitzari dagozkion kontzeptuak lantzen dira baina hainbat jarduerak erabiltzen dira ikasleek parte hartzeko. Normalean talde lanean eta batzuetan bakarkakoan ere aritzen da edukiei eztabaidatzeko.

Ikaskuntza emaitzak lortzeko problemak ebazten dira gelako praktiketan (GA). Gaiaren alde desberdinak sakontzen dira problemen ebazpena arrazonatuz eta analizatuz. Problema ematen dira eta banaka edo taldeka ebazten dira. Ebazpenaren emaitza guztion artean (irakasleak bideraturik) eta pausoka ematen da. GA-etan garatutako problema-ereduekin, ikasleek hainbat problema ebazten dute taldeka edo banaka, eta hau ebaluagarria izan daiteke.

Mintegietan (S) hainbat egoera ez-ezagunei buruz eztabaidatzen eta ebaluatzen dira. Gai bakoitzeko edukiez baliatuz eta ideia arrazonatuz egoera berri horiek azaltzen dira. Mintegietan egindako lana ebaluatzen da.

Irakasgaiaren bigarren zatian informatika-geletan ere klaseak ematen dira (GO), MEDUSA programaren bidez azido-base, konplexuen eraketa, hauspeatze eta oxidazio-erredukzio orekako ariketak grafikoki ebazten dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	5	20		5				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	7,5	30		7,5				

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 75  
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluaziorako irizpide orokorrak ondokoak dira:

-Edukien ezagutze maila  
-Datuen analisisa eta emaitzen lorpen kritikoa  
-Lengoaia zientifiko erabilpena  
-Argitasuna arrazoiketan

Kurtsoan zehar eskatzen diren zeregin ebaluagarriak derrigorrezkoak dira eta ondokoak dira:

-Banakako zein taldeko txostenak erreakzio eta oreka kimiko-egoera ezezagunen irtenbide kuantitatiboa bilatzeko.  
-Taldek zein banakako galdetegiak, bai aurrez-aurreko bai online eginda, egoera ezezagunen analisisa eta irtenbidea garatzeko  
-Bi zeregin hauetan lortutako kalifikazioa nota finaleko %25a da.  
-Proba finala, honen emaitza azkeneko notako %75a izango da.  
-Halaber, aurrez-aurreko bertaratze eraginkorra eta eskatutako zereginetan parte hartzea kontuan hartzen dira.  
-Ikasketa-prozesua errazteko, zeregin ebaluagarri ez-presentzialak dagokien feed-backez osatzen dira. Aurrez-aurre egiten diren zereginetan berehalako feed-backa taldekoa da.

Gainditzeko 10 puntutik 5 lortu behar dira, eta azken proban beharrezkoa da 10 puntutik gutxienez 4 lortzea. Puntuazio hori probaren atal guztietan orekatua izan behar da.

-Azken proban gutxieneko nota lortzen ez bada, irakasgaiaren nota proba horretan lortutakoa da.  
-Azken probaren kalifikazioa handiagoa edo berdin gutxieneko nota bada, irakasgaiaren nota finala probaren %75 eta kurtsoan zehar egindako ekintzen notaren %25 da.  
-Ikasleren baten batek ezin baditu kurtsoan zehar programatutako zereginak egin, irakasgaiaren nota azken proban lortutakoa da. Kasua bada, irakasleari idatziz jakinarazi behar zaio ebaluaziorako araudiak ezartzen duen epean.

-Azken probara ez aurkeztea deialdiari uko egitea da.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azken proba idatzia osatuta dago eta beharrezkoa da 10 puntutik gutxienez 5 lortzea. Puntuazio hori probaren atal guztietan orekatua izan behar da.

Kurtsoan zehar lortutako emaitzak positiboak badira kontutan hartuko dira eta azken kalifikazioa probaren %75 eta zereginen %25 da. Kontrara, zereginen emaitzak negatiboak badira, kalifikazioan ez dira kontutan hartzen eta proba idatziaren nota ezohiko deialdiaren notaren %100 da.

-Azken probara ez aurkeztea deialdiari uko egitea da.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- R.H. Petrucci, W.S. Harwood, F.G. Herring, "Química General", (8. ed.), Prentice Hall, Madrid, 2003
- UEUko Kimika Saila, "Kimika Orokorra", Udako Euskal Unibertsitatea, 1996.
- P. Atkins, L. Jones, "Principios de Química. Los caminos del descubrimiento", (3. ed.), Médica Panamericana, 2009.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- D.W. Oxtoby, H.P. Gillis, N.H. Nachtrieb, "Principles of Modern Chemistry", (5. ed.), Brooks Cole, 2002
- R. Levine, "Fisicoquímica", 1 eta 2 liburukiak, (5. ed.), Mac Graw Hill, 2004.
- M. Silva, J. Barbosa, "Equilibrios Iónicos y sus Aplicaciones Analíticas", Síntesis, 2002.
- R.J. Silbey, R.A. Alberty, "Kimika Fisikoa", Argitalpen serbitzua UPV/EHU, 2006.
- M.S. Silberberg, "Química General", McGraw Hill, México, 2002.
- I. Urretxa, J. Iturbe, "Kimikako Problemak", Udako Euskal Unibertsitatea, 1999.

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

- <http://webbook.nist.gov/chemistry/>
- <http://www.chem1.com/acad/webtext/virtualtextbook.html>
- <http://www.buruxkak.org>

## OHARRAK

**Ikastegia** 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
**Plana** GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua

**Zikl.** Zehaztu gabea  
**Ikastaroa** 1. maila

**IRAKASGAIA**

26628 - Konputaziorako Sarrera

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honen helburua ordenagailuaren erabilpenaren bidezko problemen ebazpena da, programazio egituratuaren paradigma erabiliz.

Garrantzi handikoa da zientzia eta ingenieritzako ikasleen oinarritzko heziketa informatikoan.

Gaitasun profesionalen garapenean laguntzen du, problemen ebazpenerako prozesuentzat erraztasuna, argitasuna, arrazionaltasuna eta dotoretasuna eskuratzeko tresnak eskainiz.

Pentsamendu logikoa trebatzen du ondorioztatzeko, indultzeko, sailkatzeko eta deskribatzeko gaitasunak garatuz. Irakasgaiaren garapenean ebatzi beharko diren problemetan, disziplina ezberdinen arteko harremanak ezartzen dira. Lehen mailako irakasgaia da, lehen lauhilabetekoa, eta ez da inolako alde aurreko ezagutza eskatzen.

Bost titulazioetan ematen da, hauetariko hirutan beste irakasgaiekin erlazioatuata egonik, graduen memorian azaltzen den bezala:

Ingeniaritza Elektronikoa:

48 kreditutako oinarritzko modulo batean integraturiko irakasgaia da.

Konputaziorako Sarrera (6) + Programazioaren Oinarriak (6) + Elektronika (6) +

Gailu Elektronikoak eta Optoelektronikoak (6) + Seinaleak eta sistemak (6) + Zirkuitu Linealak eta Ez-linealak (6) + Tresneria I (6) + Elektromagnetismoa II (6)

Modulua, formazio horizontal bat eskaintzen duten materiaz osatua dago, ingenieritza elektronikoko oinarritzko arloen ezagutza bat lortzeko pentsatuak. Irakasgai hauek, lortutako ezagutza eta trebetasunak elkar erlazioaturiko norabide ugarietan aplikatzeko aukera emango diote ikasleari.

Irakasgai hau, "programazioaren oinarriak" irakasgaiarekin batera (lehen kurtsoa, bigarren lauhilabetea), ordenagailuen munduko oinarritzko ezagutzaren eskurapena biltzen dituen muinaren parte da. Konputagailuen egitura eta oinarritzko funtzionamenduaren ezagutza lortzea, ingeniaritza eta zientzietako erabilpen orokorragoko software tresnen erabilpenean trebatzea, eta datu egitura eta konputazio egituraren ezagutzan oinarritutako programazio metodologia bat lortzea du helburu bezala, haien inguruan praktikak eta lanak garatuz.

IE-ko ikasleek, derrigorrezko beste informatikako irakasgai batzuk dituzte hirugarren mailan, aurrekoekin zuzenki erlazioatutak: "Egungo Programazio Teknikak" eta "Konputagailuen Arkitektura".

Matematika:

Kasu honetan 12 kreditutako oinarritzko "Informatika" moduloan integratutako irakasgaia da.

Konputaziorako Sarrera (6) (lehen kurtsoa, lehen lauhilabetea)+ Programazioaren Oinarriak (6) (lehen kurtsoa, bigarren lauhilabetea)

Ingeniaritza elektronikoko graduan bezala, ordenagailuen mundarekin erlazioaturiko oinarritzko ezagutza trebatzea du helburu bezala, ordenagailuen egitura, oinarritzko funtzionamendua, ingenieritza eta zientzietako erabilpen orokorragoko paketekin lan egiteko trebetasuna, eta datu egitura eta konputazioaren jatorriaren ezagutzan oinarritutako programazioaren metodologi zehatz baten lorpena, baita erlazioaturiko lan eta praktiken garapena ere.

Matematikako ikasleak "Técnicas de diseño de algoritmos" hautazko irakasgaia dute laugarren mailan, zeinek programazioaren zenbait arloetan sakontzen duen.

Fisika:

Kasu honetan 15 kreditutako moduloan integratutako irakasgaia da.

Konputaziorako Sarrera (6) (derrigorrezkoa, lehen kurtsoa, lehen lauhilabetea)+ Metodo Konputazionalak (9) (derrigorrezkoa, hirugarren kurtsoa, urte osokoa)

Fisikako gradua datuak aztertzeko, modeloak aztertu eta eraikitzeko, esperimendu numerikoak egiteko eta emaitza edo ideia zientifikoak komunikatzeko erabilgarriak diren informatikako errekursoetan eta programazioaren elementuen erabilpenean trebatzea du helburu bezala.

Ingeniaritza Kimikoa:

Irakasgaia integratuta dago oinarritzko beste irakasgai batzuekin batera "Oinarritzko formazioa" moduloan, nahiz eta ez egon zuzenki erlazioatuta moduloko beste irakasgaiekin.

Geologia:

Irakasgaia integratuta dago oinarritzko beste irakasgai batzuekin batera "Geologiarako oinarriak" moduloan, nahiz eta ez

egon zuzenki eralazionatuta moduloko beste irakasgaiekin.

## **GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Irakasgaia ematen den bost titulazioen graduen memorietan irakasgaiarekin erlazionaturiko gaitasunak bildu dira.

Erredakzioa ezberdina izan arren, honela laburbildu daitezke:

C1: Konputagailuen egitura eta oinarritzko funtzionamenduaren ezagutza lortu.

Zientzian eta ingeniartzan askotan erabiliak diren software tresnen erabilpenean trebatu.

C2: Programazio egituratuaren bidezko problemen ebazpenerako ezagutza lortu. Algoritmiaren oinarriak ezagutu eta datu egitura difinitzen eta erabiltzen ikasi.

C3: Egungo programazio lengoai bat menperatu eta oinarritzko algoritmoak sortzeko gai izan.

Ondoko zeharkako gaitasunak baita ere trebatuko dira:

-CT2: Ikasteko gaitasuna

-CT3: Talde lana

-CT5: Komunikatzeko gaitasuna

Eskuratu beharreko emaitzak ondokoak dira:

RA1: Algoritmo baten oinarritzko elementuak erabiltzen ikastea.

RA2: Infomrazioa gordetzeko datu egitura ezberdinak erabiltzen ikastea.

RA3: Datu egitura ezberdinak erabiliz lortutako problema baten ebazpen algoritmiko ezberdinen balioagarritasuna argumentatzen ikastea, bai bakarka, bai taldeka.

RA4: Modularitate eta eraginkortasun ikuspegietatik emaitza baten aukeraketa argumentatzen ikastea.

RA5: Programazioa errazten duten aplikazio-tresnak erabiltzea.

RA6: Maila altuko programazio lengoai bat erabiltzea, problemen emaitza algoritmikoak programa baten bidez lortzeko, emaitzak balioztatuz frogaz ezberdinend bidez.

## **EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1- Ikuspegi historikoa

2- Oinarriak. Hardwarea: arkitektura, ordenagailu pertsonala, konputazio masiboa, sareak, sareartea. Softwarea: Erabiltzaile-aplikazioak, programazio-lengoaiak, konpiladoreak eta interpretatzaileak, aplikazio banatuak, sare-aplikazioak. Makina birtuala: hardware, software eta sistema eragilea.

3- Programazio oinarriak. Espresioak, eragileak, esleipen sententziak. Kontrol egiturak. Datu-antolamendua: atzipen sekuentziala eta auzazko atzipena.

4- Diseinu modularra. Funtzioen definizioa. Parametroak eta itzulera-balioak. Errekurtsibitatea.

Programazio praktikak eta Zientzia eta Ingeniaritzarako interesgarria den software baten erabilpena

## **METODOLOGIA**

T1: Klase magistralak

Klase magistraletan ematen diren material teorikoak Egelan egongo dira aste bateko aurreapenarekin gutxienez.

Klase magistralean zehar programazioaren kontzeptu ezberdinak azalduko dira zailtasun maila ezberdineko problemen ebazpenaren bidez.

Programazio adibide hauek era ezberdinetan ebartziko dira klasean ematen diren kontsulta eta esatekoen arabera (adibideak eta emaitzak klasearen eskaeren arabera antolatuko dira).

T2: Paperean programazio lengoai egituratu baten bidez ebartzitako problemen emaitzen baliozkotzea eta eztabaida.

Ikasleek Egelan proposaturiko problemen emaitzak aurkezten dituzte.

Aurkezpena arbelean izango da, problema bakoitzaren bi ebazpen ezberdin emanez behintzat. Klasean eztabaida txiki bat egongo da emaitza bakoitzaren ontasunak komentatzeko.

T3: Problemen ebazpena paperean, programazio lengoai egituratu baten bidez.

Klasean zehar problemen enuntziatuak planteatuko dira eta ikasleak hauek ebazten saiatuko dira taldeka.

Arbelean problemak ebazti beharko dituzte, problema bakoitzarentzat behintzat bi ebazpen ezberdin aurkeztuz. Klasean emaitza bakoitzaren ontasunak komentatuko dira.

T4: Problemen ebazpena, ordenagailua erabiliz eta programazio lengoai egituratu baten bidez.

Ordenagailua erabiltzen den klaseetan ikasleek bikoteka lan egongo dute emandako arazoak ebazteko.

Klase hauetan irakaslea ikasleek dituzten galderak erantzuteko egongo da bakarrik.

Ikasleek beraien lana bukatzeko aste bat dute, klaseko orduetaz aparte, eta emaitzak Egela erabiliz aurkeztuko dituzte.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	20	10	6		24				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	30	15	9		36				

**Legenda:** M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Banakako lanak % 15

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Etengabeko ebaluazioa:

Lanak/Ariketak 15% (haztapena 4)

Praktiak, txostenak, azterketa 25% (haztapena 4)

Azterketa finala 60% (haztapena 4). Ikaslea azterketara ez badoa, ez aurkeztua agertuko da aktetan.

Hala ere, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontaktzen hasita.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa finala %100

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Titulaziorako interesgarriak diren pakete informatikoak: Python3 edo Scilab

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

1. Goirizelaia, I (1999) "Programazioaren oinarriak". Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbao
2. Brookshear, J. G. (2012) "Introducción a la computación. Pearson.
3. Tucker, A. B., Cuper, R. D., Brudley, W.J. y Garnik, D.K. (1994). "Fundamentos de informática". MCGRAW-HILL.
4. Zelle, J. (2004). "Python Programming: An Introduction to Computer Science". Ed. Franklin , Beedle & Associates

### Gehiago sakontzeko bibliografia

1. Downey, A.B. "Python for software desing. How to think like a computer scientist". Ed. Cambridge University Press

### Aldizkariak

### Interneteko helbide interesgarriak

Python:

<http://docs.python.org/py3k/tutorial/index.html>

Scilab:

[https://egela.ehu.es/pluginfile.php/306303/mod\\_resource/content/1/Libros/scilab.pdf](https://egela.ehu.es/pluginfile.php/306303/mod_resource/content/1/Libros/scilab.pdf)

<http://cloud.scilab.in/>

[http://scilab-test.garudaindia.in/cloud/scilab\\_view](http://scilab-test.garudaindia.in/cloud/scilab_view)

<http://www.scilab.org/download/5.5.2>

## OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua

Ikastaroa 1. maila

## IRAKASGAIA

26695 - Laborategiko Oinarrizko Eragiketak

ECTS kredituak: 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan hainbat laborategiko praktikak burutzen dira eta horien helburua da ikasleak ezagutzea laborategi kimiko batean dauden oinarrizko segurtasun-arauak, honako oinarrizko eragiketetan trebetasuna hartzea: disoluzioen prestakuntza eta balorazioa, solido/likido eta likido/likido banatze teknikak, gasen eta solido ezorganiko eta organikoen purifikazio eta manipulazio teknikak. Horretaz gain arreta berezia jarriko da laborategiko koadernoan eta txostenetan.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgai honetan laborategiko praktika multzo bat garatuko da, ikasleak laborategi kimikoan lan egiteko oinarrizko segurtasun-arauak ezagu ditzan eta jarraian aipatutako oinarrizko operazioak egiten trebetasuna har dezan: disoluzioen prestakuntza eta balorazioa, solido/likido eta likido/likido banatze teknikak, gasen eta solido ezorganiko eta organikoen purifikazio eta manipulazio teknikak.

Izan ere, irakasgai honi esker ikasleak ondorengo gaitasunak lortuko ditu:

M01CM03- Kimikako laborategian gehien erabiltzen den materiala, aparatua eta teknika esperimentalen erabilera modu seguru eta egokian.

M01CM05- Kimikako eta beste zientzia esperimentalen eremuetako emaitzen aurkezpena, analisia eta behatze ahalmena.

M01CM09- Zientzia esperimentalez baliatzea prozesu kimikoak ulertzeko.

M01CM11- Zientzia esperimentaletako ohiko dokumentazioa eta iturrien ezaugera eta erabilera.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

## PROGRAMA TEORIKOA

1.-Laborategian lan eta segurtasun arauak.

Laborategiko oinarrizko segurtasun-arauak. Babespen pertsonala. Laborategiko materialaren deskribapena eta erabilera. Beirazko materialaren garbiketa eta lehortze-prozesua. Erreaktibo kimikoen manipulazioa. Ohizko substantzia toxiko eta arriskutsuak. Bitrinen erabilera. Hondakinen gestioa. Laborategi kimikoaren gestioa. Laborategiko koadernoan zelan egin. Datuen tratamendua. Bibliografiaren erabilera. Txostenak idazteko modua.

2.- Oinarrizko operazioak.

Pisaldi metodoak. Kontzentrazio unitate erabilienak. Disoluzioen prestakuntza eta balorazioa. Likido/likido eta solido/likido disoluzio urtsuen prestakuntza. Azido-base eta redox bolumetria.

3.- Erreaktibotasun kimikoa.

Azido-base erreakzioak. pH neurtzeko metodoak. Redox erreakzioak. Gasen askatzearekin gertatutako erreakzioak.

Erreakzio itzulgarria eta itzulezina. Hauspeatez-erreakzioak. Hauspeakinen banaketa. Konplexuen eraketa. Erreakzioaren etekina. Erreakzio egoera solidoan: deskonposizio termikoa.

4- Banatze eta purifikazio teknikak.

Kristalizazioa: Oinarria. Kristalizazio motak. Disolbatzailearen lurrunketaren bidezko, disolbatzailearen adizioaren bidezko, tenperaturaren bidezko eta sublimazioren bidezko kristalizazioa. Kristalaren banaketa.

Konposatu organikoen birkristalizazioa: disolbatzailearen hautaketa, iragazketa eta lehorketa. Fusio puntuak. Materiala eta prozedura.

Erauzketa: Oinarria. Banatze-koefizientea. Likido-likido eta solido-likido erauzketa. Materiala eta prozedura. Agente lehorgarriak. Azido-base erauzketa.

Destilazioa: Oinarriak. Motak eta erabilerak. Irakite puntuak. Destilazio sinplea, zatikatua, hutsean eta lurrun-arrastearen bidezko destilazioa. Nahaste azeotropikoak. Materiala eta prozedura.

Kromatografia: Oinarriak. Kromatografia motak. Erabilerak. Fase geldikorra: adsorbatzaile motak. a

Fase mugikorra. Geruza fineko kromatografia teknika. Erretentzio-faktorea.

## PROGRAMA PRAKTIKOA

1. praktika: KRISTALIZAZIOA

Laborategiko materialaren identifikazioa eta erabilera: laborategiko oinarrizko materiala. Pisatzeko metodoak: laborategiko balantza-motak. Kristalizazioa. Kristalaren banaketa, garbiketa eta lehorketa. Erreakzioaren etekina.

2. praktika: DISOLUZIOEN PRESTAKETA ETA BALORAZIO BOLUMETRIKOA

Likidoen bolumen-neurketa: material bolumetrikoa. Disoluzioen prestakuntza kontzentrazio-unitate desberdinak erabiliz: oinarrizko kontzeptuak, kontzentrazio-unitate erabilienak. Azido/base bolumetria.

3. praktika: GASEN ASKAPENA

Gasen askapena. Gasen sorkuntza eta identifikazioa. Gasak bideratzeko beirazko materialen prestakuntza.

4. praktika: ERREAKZIOAK SAIODIETAN

Erreaktibotasun kimikoa: pH aldaketa, kolore-aldaketa, gasen askapena, erreakzio itzulgarriak eta itzulezinak, konplexuen

eraketa, truke ionikoa, erredox erreazioak. Laborategiko oxidatzaile ohikoenak. Erreakzioak solido egoeran: deskonposizio termikoa.

5. praktika: HAUSPEATZE-ERREAKZIOAK

Hauspeatzearen bidezko solidoen prestakuntza. Solidoen banaketa iragazketa/zentrifugazioren bidez. Garbiketa eta lehorketa.

6. praktika: ERAUZKETA I. Tearen kafeinaren erauzketa.

Birfluxutan berotu, erauzketa, lehorte prozesua, iragazketa, disolbatzailearen lurrunketa.

7. praktika: ERAUZKETA II. Azido-base erauzketa. Etil-4-aminobentzoato, azido bentzoiko eta fluoreno nahastearen bereizketa.

Erauzketa, lehorte prozesua, iragazketa, disolbatzailearen lurrunketa.

8. praktika: KRISTALIZAZIOA. Zenbait solidoen purifikazioa. Azido bentzoikoaren eta fluorenoaren kristalizazioa.

Birfluxutan berotu, iragazketa, kristalizazioa.

9. praktika: DESTILAZIOA. Destilazio simplea eta zatikatua. Likido baten purifikazioa eta likidoen bereizketa.

Destilatu, irakite-puntua aztertu, bi likido bereiztu.

10. praktika: KROMATOGRAFIA. Geruza fineko kromatografia. analgesikoen identifikazioa: ibuprofenoa, paracetamola, aspirina, kafeina.

Geruza fineko kromatografia, Rf -aren kalkulua, konposatuen identifikazioa.

## METODOLOGIA

Mintegietan (2 ordu) irakasgaiaren zehaztasunak aipatzen dira, gelako praktketan (14 ordu) praktikak azaldu eta praktikekin erlazionatutako ariketak ebazten dira eta horretaz gain laborategiko praktikak daude (44 ordu).

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		2	14	44					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a		3	21	66					

**Legenda:** M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- 1.Praktiken burutzea. %30
  - 2. Banakako lana. %25
  - 3. Azterketa teorikoa. %20
  - 4. Azterketa praktikoa. %25
- Guztira % 100

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

OHIKO DEIALDIRAKO EBALUAZIOA:

A EBALUAZIO JARRAITUA.

### 1. PRAKTIKEN BURUTZEA

- Derrigorrezkoa.
- Erreaktiboen eta laborategiko materialaren erabilera egokia ebaluatuko da.
- Atal honen pisua: %30. Gutxieneko nota: 4.

### 2. BANAKAKO LANAK

- Derrigorrezkoa.
- Oinarrizko teknikak ezagutzea eta gertakariak eta prozesuak era ulergarrian azaltzeko ahalmena ebaluatuko dira.
- Derrigorrezkoa da praktika guztiei dagozkien galderen erantzunak entregatzea.
- Atal honen pisua: %25. Gutxieneko nota: 4.

### 3. AZTERKETA TEORIKOA

- Derrigorrezkoa.
- Planteamendu egokia eta erantzunen zehaztasuna eta koherentzia ebaluatuko dira.



- Atal honen pisua: %20. Gutxieneko nota: 4.

#### 4. AZTERKETA PRAKTIKOA.

- Derrigorrezkoa.
- Laborategiko oinarrizko tekniketarako trebetasuna eta segurtasun arauak errespetatzea eta betetzea ebaluatuko dira.
- Ikasleak koaderno soilik erabil dezake azterketa egiteko. Koaderno hori, DIN A4 tamaina duena, ikasleak praktikak egiterakoan idatzitakoa eta irakasleagatik sinatutakoa izango da.
- Atal honen pisua: %25. Gutxieneko nota: 4.

#### UKO EGITEA

- Ebaluazio jarraituari uko egiteko idatziz jakin arazi behar zaie irakasgaiko irakasleei 9. astea baino lehen.
- Azterketetara ez aurkeztearekin nahikoa da ohiko deialdiari uko egiteko.

### B. AZKEN EBALUAZIOA.

#### 1. AZTERKETA PRAKTIKOA.

- Derrigorrezkoa.
- Erreaktiboan eta laborategiko materialaren erabilera egokia, oinarrizko teknikak ezagutzea eta gertakariak eta prozesuak era ulergarrian azaltzeko ahalmena eta laborategiko oinarrizko tekniketarako trebetasuna ebaluatuko dira. Era berean segurtasun arauak errespetatzea eta betetzea ere ebaluatuko dira.
- Atal honen pisua: %80. Gutxieneko nota: 4.

#### 2. AZTERKETA TEORIKOA

- Derrigorrezkoa.
- Planteamendu egokia eta erantzunen zehaztasuna eta koherentzia ebaluatuko dira.
- Atal honen pisua: %20. Gutxieneko nota: 4.

#### UKO EGITEA

- Azterketara ez aurkeztearekin nahikoa da ohiko deialdiari uko egiteko.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

#### EZ-OHIKO DEIALDIRAKO EBALUAZIOA:

#### 1. BANAKAKO LANAK

- Derrigorrezkoa.
- Oinarrizko teknikak ezagutzea eta gertakariak eta prozesuak era ulergarrian azaltzeko ahalmena ebaluatuko dira.
- Derrigorrezkoa da praktika guztiei dagozkien galderen erantzunak entregatzea.
- Atal honen pisua: %25. Gutxieneko nota: 4.

#### 2. AZTERKETA PRAKTIKOA.

- Derrigorrezkoa.
- Laborategiko oinarrizko tekniketarako trebetasuna eta segurtasun arauak errespetatzea eta betetzea ebaluatuko dira.
- Ikasleak koaderno soilik erabil dezake azterketa egiteko. Koaderno hori, DIN A4 tamaina duena, ikasleak praktikak egiterakoan idatzitakoa eta irakasleagatik sinatutakoa izango da.
- Atal honen pisua: %55. Gutxieneko nota: 4.

#### 3. AZTERKETA TEORIKOA

- Derrigorrezkoa.
- Planteamendu egokia eta erantzunen zehaztasuna eta koherentzia ebaluatuko dira.
- Atal honen pisua: %20. Gutxieneko nota: 4.

#### UKO EGITEA

- Azterketara ez aurkeztearekin nahikoa da ezohiko deialdiari uko egiteko.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Mantala. Segurtasun betaurrekoak. Laborategiko eskularruak. Espatula. Koadernoak, DIN A4 tamainakoa.

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

1. M. Fernández González, Operaciones de laboratorio en Química, Anaya, Madrid, 2004.
2. M. J. Insausti, E. Charro, P. Redondo, Manual de experimentación básica en Química, Universidad de Valladolid, Valladolid, 2000.
3. J. Martínez Urreaga, Experimentación en química general, Thomson, Madrid, 2006.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

1. M. A Martínez, Técnicas experimentales en síntesis orgánica, Síntesis, Madrid, 2.Edizioa, 2014.
2. J. Tanaka y S.L. Suib, Experimental Methods in Inorganic Chemistry. Prentice Hall (1999).
3. J.D. Woollins, Inorganic experiments. 2<sup>a</sup> ed., VCH Publishers: Nueva York (2003).

### Aldizkariak

Journal of Chemical Education

### Interneteko helbide interesgarriak

1. <http://webbook.nist.gov/chemistry>
2. <http://testubiltegia.ehu.es/Esperimentazioa-sintesi-1>
3. Quiored. Recursos educativos en Química Orgánica:(<http://www.ugr.es/~quiorred>)

## OHARRAK

## IRAKASKUNTZA-GIDA

2024/25

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztuqabea

Plana GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua

Ikastaroa 1. maila

## IRAKASGAIA

25824 - Matematika I

ECTS kredituak: 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Matematika I irakasgaia oinarrizko irakasgaien multzoan dago kokatuta, funtsezko eta ezinbestekoa beraz Geologia Gradurako zein Ingeniaritza Kimiko edota Kimika Graduetarako ere.

Irakasgai teoriko-praktikoa da, oinarrizko printzipio zientifikoak ezagutu eta beharrezkoak diren dimentsio matematikoak behatuko direlarik unibertsoko prozesuak ulertzeko, batez ere, prozesu kimiko eta geologikoak.

Edozein zientzia-arloko ezaguera zimendatzen den irakasgaia izateak ikasketen hasieran ipinarazten dio.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Zeharkako gaitasunak:

- G001: Analisi eta sintesi gaitasuna.
- G002: Problema ebazteko gaitasuna.
- G003: Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko gaitasuna.
- G004: Ikasitakoa praktikan jartzeko gaitasuna.
- G005: Ikaskuntza eta lan autonomoa eta sormenezkoa.
- G009: Ahozko eta idatzizko komunikazioa jaioterriko hizkuntzan.

Gaitasun espezifikoak:

- M01GM1.3: Ikuspegi espaziala eta abstrakzio gaitasuna garatzea.
- M01GM1.4: Oinarrizko funtzio matematikoen esanahia ulertzea eta horiek erabiltzeko gai izatea.
- M01GM1.5: Ikasleari oinarrizko irakasgaien metodologia esperimentalaren hastapenak irakastea.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Aztergaiak:

- Zenbakiak eta funtzioak. Zenbaki konplexuak. Desberdintzak. Oinarrizko funtzioak.
- Jarraitasuna. Aldagai bateko funtzioak. Limiteak eta jarraitasuna. Jarraitasunen Teorema nagusiak.
- Kalkula Diferentziala. Deribazio-erregelak. Optimizazioa. Funtzioen irudikapen grafikoa. Taylor polinomioa.
- Kalkulu integrala. Aldagai bateko funtzioen integrazio teknikak. Integral mugatua: integrala azalera gisa. Kalkulu integralaren teorema nagusia. Aplikazioak.
- Algebra lineala eta aplikazioak. Espazio bektorial errealak. Aplikazio linealak. Matrizeak. Kalkulu matriziala. Determinanteak. Autobalioak eta autobektoreak. Matrizeen diagonalizazioa.

## METODOLOGIA

Aktibitate presentzialak ikasgelan egingo dira eta irakasgaiari ekoizpen maximoa ateratzeko aktibitate horietara asistentzia jarraitua izatea eskatzen da. Bereziki problemen ebazpenerako beharko den ezaguera teorikoa sustatuko da.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	6	18		6				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	9	27		9				

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 100

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Nahitaezkoa izango da mintegietara eta ordenagailu praktiketara joatea.

Ordenagailu praktikei buruz, ikasleak kurtsuan zehar praktika horiek egin ez baditu, orduan praktika horiek menperatzen

dituela erakutsi beharko du proba praktikoko batean.

Praktika horiek aurreko moduan gainditu direnean, irakasgaia gainditu ahal izateko azterketa finalean 4 bat lortu beharko da 10en gainean, eta azken nota honelaxe banatuko da: % 85 idatzitako azterketatik eta % 15 ikasle bakoitzaren lanetatik.

Nolanahi ere, ikasleak azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatzeko eskubidea izango du, ebaluazio jarraituaren sisteman parte hartu duen edo ez kontuan hartu gabe. Horretarako, ikasleak idatziz aurkeztu beharko dio irakasleari ebaluazio jarraituari uko egiteko. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikastaroaren hasieratik zenbatzen hasita. Ordenagailu praktiketara joatea beharrezkoa denez, ikasleak kurtsuan zehar praktika horiek egin ez baditu, orduan praktika horiek menperatzen dituela erakutsi beharko du proba praktikoko batean. Azken ebaluaziorako azterketa bat egingo da, notaren % 100a izango dena.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ordenagailu praktiketara joatea beharrezkoa denez, ikasleak kurtsuan zehar praktika horiek egin ez baditu, orduan praktika horiek menperatzen dituela erakutsi beharko du proba praktikoko batean. Azken ebaluaziorako azterketa bat egingo da, notaren % 100a izango dena.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

#### **BIBLIOGRAFÍA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

Calculus. Vol I y Vol II. S. Salas, E. Hille y G. Etgen. Editorial Reverte.  
5000 Problemas de Análisis Matemático. Demidovich.  
Algebra Lineal. H. Antón. Editorial Limusa.  
Kalkulu diferentziala eta integrala. N. Piskunov. Editorial U.E.U.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

##### **Aldizkariak**

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://ocw.ehu.es>  
<http://www.divulgamat.net/>  
<http://www.geogebra.org/>

#### **OHARRAK**

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztuqabea

Plana GINQUI30 - Ingeniaritza Kimikoko Gradua

Ikastaroa 1. maila

## IRAKASGAIA

25829 - Matematika II

ECTS kredituak: 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan segidak eta serieak, aldagai anitzeko funtzioak, integral anizkoitzak eta ekuazio diferentzialak irakasten dira.

Matematika I irakasgaiaren ikasitako aldagai bakarreko funtzioen kalkulari buruzko ezagutzak oinarritzat erabiltzen ditu eta Estatistika, Fisika eta Ingeniaritzaren Oinarriak irakasgaiak hobeto ulertzeko tresna modura balio du.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- Identifikatu, formulatu eta ebatzi kimikaren, fisikaren eta matematikaren berezko problemak.
- Identifikatu eta ebatzi Ingeniaritza Kimikoaren problemak, oinarritzko materialak barneratuz.
- Komunikatu eta transmititu, funtsean, idatziz, hartutako ezagutzak, emaitzak, abileziak eta trebetasunak, diziplina anitzeko ingurune batean.
- Ebatzi oinarritzko materien problemak, kalitatez, ingurumenaren aldeko sentikortasunez, iraunkortasunez, irizpide etikoaz planteaturik, norberaren lanaren beharra inkulkatuz.
- Lortu segidei eta serieei, aldagai anitzeko funtzioei, integral anizkoitzei eta ekuazio diferentzialei buruzko ezagutzak, hala nola jakin problema praktikoetan erabiltzen.
- Ingeniaritzan Kimikoan erabiltzen diren informatika tresnak maneiatu kalkulurako eta marrazketarako.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- Gaia: Berretura serieak.  
Zenbakizko segidak eta serieak.  
Segiden limiteak eta serieen konbergentzia irizpideak.  
Berretura serieak.
- Gaia: Aldagai anitzeko funtzioak.  
Aldagai anitzeko funtzioak eta funtzio bektorialak, limiteak eta jarraitutasuna.  
Deribatu partzialak, gradienteak eta norabide deribatua.  
Funtzioen muturrak: maximoak eta minimoak.
- Gaia: Integral bikoitzak eta hirukoitzak.  
Integral bikoitzak eta hirukoitzak.  
Aldagai aldaketa integral anizkoitzean: koordenatu polarrak, esferikoak eta zilindrikoak.  
Aplikazioak: azalera eta bolumenen kalkulua.
- Gaia: Ekuazio diferentzialak eta modelizazioa.  
Lehen ordenako ekuazio diferentzialak.  
Kimika zinetikoaren ekuazioak.  
Goi ordenako ekuazio linealak.  
Ekuazio diferentzialezko sistema autonomoak.

## METODOLOGIA

Oinarritzko eduki teorikoa eskola magistraletan azalduko da bibliografian eta nahitaez erabili beharreko materialean agertzen diren erreferentziei jarraituz. Eskola magistral horiek problema eskolekin osatuko dira (gela praktikak); bertan ikasleei proposatuko zaie eskola teorikoetan lortutako ezagutzak aplikatu behar diren galderak ebatz ditzaten. Mintegietan irakasgaiaren edukiaren adierazgarriak diren galderak eta adibideak garatuko dira; horiek, orokorrean alde aurretik emango zaizkie ikasleei, horiei buruz lan egiteko eta gero horretarako erabiliko den saioan hausnarketa eta eztabaida motiba ditzaten. Gainera, irakasgaiaren konpetenziak lortze aldera bideratutako ordenagailu praktikak egingo dira.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	6	18		6				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	9	27		9				

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. Klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikusi orientazioak % 100

#### **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluzio jarraitua egingo duten ikasleak honako modu honetan ebaluatuko dira:

- Mintegietan proposatutako problemen ebazpena. Taldeka egindako lanaren eztabaida. Problemen aurkezpena arbelean: % 10

- Ordeanagailu praktikak: %10 programazio azterketa.

- Ebaluzio jarraituko azterketa idatziak: %20.

- Amaierako azterketa idatzia: %60.

Batezbestekoa egiteko beharrezkoa izango da amaierako azterketa idatzian 10 puntutik 4 baino gehiago lortzea.

Ikasleek aukera izango dute azken ebaluazioaren bitartez ebaluatuko izateko, ebaluzio jarraituko sisteman parte hartu duten ala ez kontuan hartu gabe. Ebaluzio jarraituari uko egin nahi dioten ikasleek irakasleari jakinarazi beharko diote 16 eta 30 asteen arteko epean.

Klaseko lehenengo egunean emango zaizkie zehaztasun gehiago ikasleei.

Ebaluzio jarraituari uko egin dioten ikasleak azterketa bat eginez ebaluatuko dira. Azterketa horretan irakasgaiko eduki guztia ebaluatuko da, Softwarearen kompetentzien erabilera barne.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ezohiko deialdian ebaluzio irizpide berdinak erabiliko dira ebaluzio jarraituko "ekintzak" gaindituta dituzten ikasleak ebaluatzeko (4 puntuetatik gutxienez 2 puntu lortu dituzten ikasleentzako). Gainontzeko ikasleak ebaluatzeko azterketa idatzi bat eta programazioko azterketa egingo dira. Azterketa horiek amaierako notaren %90 eta %10 balioko dute, hurrenez hurren.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

eGelako materiala

MATLAB edota Scilab edota Wolfram Mathematica

#### **BIBLIOGRAFÍA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

- J.E. Marsden & A.J. Tromba: Cálculo vectorial. Ed. Addison Wesley Iberoamericana, 1991.

- E. Kreyszig: Advanced Engineering Mathematics, 10th Edition, John Wiley & Sons, 2011

- V. Muto & M.B. Del Hoyo: Fundamentos Matemáticos de la Ingeniería, Servicio Editorial Universidad del País Vasco, 2002.

- E. Mijangos: Ingeniaritzaren oinarri matematikoak. UPV/EHU-ko Argiltapen Zerbitzua, 2003

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- B. Demidovich: Problemas y ejercicios de análisis matemático. Ed Paraninfo, 1990.

- S.L. Salas, E. Hille & G.J. Etgen: Calculus de una y varias variables. Ed. Reverté, 2002.

- A. Kiseliov, G. Makarenko y M. Krasnov. Problemas de ecuaciones diferenciales ordinarias. Ed. Mir-Rubios (1992).

- V.G. Jenson, G.V. Jeffreys. Métodos matemáticos en Ingeniería Química. Ed. Alhambra (1969).

- M. Besada, F.J. García, M.A. Mirás, C. Vázquez: Calculo diferencial en varias variables. Ed Garceta, 2011.

- G.F. Simmons: Ecuaciones diferenciales con aplicaciones y notas históricas, McGraw Hill, 1993.

##### **Aldizkariak**

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.librosite.net/marsden> (Marsden/Tromba liburuaren material gehigarria)

<http://www.divulgamat.net/> (Matematikako zabaltze-webgunea)

<http://mathworld.wolfram.com/topics/Functions.html>

<http://www.mathworks.com/> (Matlab lengoaiaren webgunea)

<http://www.dpgraph.com/> (Tresna grafikoa)

#### **OHARRAK**